



## **BEZEROEKIKO HARREMANA**

Bezeroei helarazi nahi diegun mezu garrantzitsuenak bi dira. Alde batetik, modu egonkorrean bidaiatzeko aukera badagoela eta hori gerta dadin enpresak laguntza emango diela jakinaraztea eta bestetik, enpresaren gardentasuna izango dira. Hori lortzeko, gure weborrian azalduko ditugu gure bermea aurrera ateratzeko erabiltzen ditugun irizpideak, gure kolaboratzaileen inguruko informazioa, enpresarekin lan egiten duten adituei buruzko informazioa...

Gure helburua betetzeko eta bezeroei zerbitzu onak eskaintzen dizkiegula ziurtatzeko, gure kolaboratzaileak aukeratzeko orduan hainbat irizpide hartuko ditugu kontuan. Lehenik eta behin, gurekin lan egingo duten enpresek ematen dituzten zerbitzuak natura kaltetzen ez dutela frogatuko dugu eta enpresa batek ezaugarri hori betetzen duela ziurtatu arte ez dugu iragarkia gure weborrian jarriko. Bigarrenik, erreserba egiteko orduan, hostal, hotel edo beste zerbitzuak eskaintzen dituzten enpresek bezeroek harreman ona eta ordainketa guztia ondo ateratzen dela begiratuko dugu. Azkenik, arazo bat egongo balitz enpresa prest egongo litzake laguntzeko eta bidai bakoitzaren bukaeran bezeroei zerbitzu eta balorazio guztien iritzia ematea eskatuko diegu.

Gainera, gure helburuetako bat, bezeroak inolako arazorik gabe opor edo egun pasa ona izatea da. Hori dela eta, gurekin kolaboratzen duten enpresen ahalik eta informazio gehiena emango diegu bakoitzak hoberen datorkion aukera aukeratu dezan.

Bezeroak fidelizatzeko, beste bi modu erabiliko ditugu. Lehenengo deskontuak lortzeko puntu sistema bat sortuko dugu. Gure bezeroei weborriaren bitartez egiten duten erreserba bakoitzeko puntuak emango dizkiegu. Ondoren, puntu kopuru jakin batera iristean hurrengo erreserban deskontu txiki bat egingo diegu. Kontuan hartu behar dugu gure enpresak zerbitzu jasagarriekin egingo duela lan eta horregatik, prezioak altuagoak izango direla. Horretaz gain, gure zerbitzuaren erabilera erraza eskaintzen saiatuko gara, lehenengo web simple bat eginez, eta ondoren, enpresa handitzean, erabilera intuitiboko aplikazio bat sortuz. Azken finean gure ustez enpresak jende gazte asko erakarriko ditu, hauek baitira jasagarritasunarekiko kezka handiena daukatenak. Hala ere, era jasagarrian bidaiatzeko aukera denon esku jarri nahi dugunez, aplikazio eta weborri sinpleak sortu nahi ditugu adin guztietako jendeak (teknologia berrietan adituak edo ez dena) erabili dezan.